

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea 1 zenbakiko zerga ordenantza, kudeaketa, ikuskaritza eta diru bilketari buruzkoa

Udalbatzak, 2019ko martxoaren 28ko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion kudeaketa, ikuskaritza eta diru bilketari buruzko 1 zenbakiko zerga ordenantza aldatzeari (2019/5/S062 espedientea).

Erabakia eta haren aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe horretan interesa dutenek espedientea aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerga ordenantzak aldatzeko erabakia behin betiko onartutzat emango da, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Amurrio, 2019ko apirilaren 2a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA